



Maiatzak 26: Hauteskundeak

Elkarrizketa



Alberto PRADERA

Jose Alberto Pradera Bizkaiko Diputatu Nagusigai jeltzaleari ez zaio arrotz suertatzen kargu hori, orain arte horixe betetzen egon bait da. Begi onez ikusten du azken legealdian sozialistekin egindako lana, baina ez du zehaztu nahi errepikatuko ote lukeen; HBrekin ezik, hitzarmena edozei- nekin egiteko prest dago. Hala ere, ez du itxaropenik galtzen bakarrik gobernatzeko. «Programa bat dugu eta osoa burutzen ahaleginduko gara», argudiatzen du.

«Burujabetasuna independentzia baino lehenagokoa da» EAJk «gutxien eskatzen dionarekin» gobernatuko du, dio Bizkaiko hautagaiak

Z.ZAMAKOLA / BILBO

EGUNKARIA.— Azken legealdian sozialistekin batera gobernatu duzue Diputazioan. Zer nolako balantzea egiten duzu, instituzio honen gestioaz batetik, eta bi elkarkideen arteko harremanaz bestetik?

JOSE ALBERTO PRADERA.— Azken batean Diputazioan EAJkoak izan gara aintzindariak eta gure irudia eman da leku gehienetan. Harremanei lotuta, lauzpabost gauza alde batera utzita, onak izan direla uste dut, leialtasun handia eduki dugula. Denok lau urterako programa aurrera eroraten ibili gara eta Madrilerekin izan ditugun arazoetan sozialistak gurekin etorri dira, eta benetan eskertzekoa izan da.

EGUNKARIA.— Badirudi hauteskunde hauetan alderdi guztiok Bilbo 'aurkitu' duzuela.

PRADERA.— Bilbon azken urteotan egin dira gauzak, baina ez hainbeste gauza. Zergatik? Antolakuntza Orokorren Egitasmoa egin barik daukatelako. Hori egin arte ezin dugu ezer egin.

Orain dela urte t'erdi Bilboko udaltxearekin akordioa egin genuen, Diputazioak 24.000 milioi pezeta (1.200 milioi libera) ipintzeko eta udaletxeak lurak baino ez. Euren nondik egin esaten dutenean, guk sarbideak egingo ditugu.

Esan nahi dut Bilbo ez dugula oraintxe aurkitu, inbertsio handiak egin direla. Metroan 45.000 milioi pezeta sartu dira, eta hori nagusiki Bilbotarrentzat da.

EGUNKARIA.— Diputazioari udaltxeen autonomia murriztea leporatu izan zaio.

PRADERA.— Hori ez da horrela. Azken lau urteotan Bizkaian behintzat, EUEDEko zuzendariaren gure harremanak izan ditugu eta azkenean beti akordioa lortu dugu. Ez dugu inoiz ezer inposatu, elkarrekin lanean joan gara. Zer gertatzen da? Diputazioak kompetentzi asko dagoela eta pentsatzen da: 'hortxe datoz Diputaziokoak'. Baina hori ez da inoiz izan eta ni nagoen artean ez da izango. Esaera bat baino ez da.

EGUNKARIA.— 'Euskaldunarekin' beste arazo batean sartzen gara, Madrilerekin instituzioen lurak direlako...

✓ «Bizkaiko errepideak Estatu mailan hobere-
nak direla esan daiteke».

«Burujabetasunaren mo-
torra bihotza da, baina ga-
solina dirua».

PRADERA.— Hor udaletxea sartu zen, espropiatu nahian, eta gu alde batera geratu ginen, ea hor zer gertatzen zen. Nik Juan Saenz INIKo untzigin-tza buruarekin berba egin neukan eta gutxi gorabehera hori zehaztua geneukan; Bilbo sartu zen eta beno, eztabaidak izan genituen hasieran baina nik beti esan dut zerbaite egiten badute euren diruaz, ondo. Bilboko alkateak ez dakit zer egin nahi duela? Benio, baina bere diruaz. Gure diruaz ez du egingo berak nahi duena.

EGUNKARIA.— Beraz, Gorordorekin egin dugu topo.

PRADERA.— Ezin da aipatu Gorordo txarrerako guztietan. Gorordo eta berarekin joan diren guztiak.

EGUNKARIA.— Baina berarekin joan dira EAJko zinegotzi guztiak...

PRADERA.— Alderdiko zinegotziak ezin dira joan beraren aurka.

EGUNKARIA.— Istilu asko eduki dituzue Madrilerekin.

PRADERA.— Bai, European lehia handia egongo da maila fiskalean, eta gu bide horretan sartzen hasi gara. Madrilerekin beste bide bat dauka eta argi dago istiluak hortik sortzen direla.

EGUNKARIA.— Badirudi Bizkaian berriro behar izango dela hitzarmen beharra...

PRADERA.— Ikusiko dugu, uste dut gehiengo nagusia lortzen ez badugu, hurbil ibiliko garela. HBkoak ez badira joaten, seguru edukiko dugu eta bestela, ikusi egin behar zenbaten faltan egongo garen.

EGUNKARIA.— Eta egitekotan, no-
rekin?

PRADERA.— Gu programa batekin goaz, eta horixe atera behar dugu. Bakarrik ezin badugu atera, ikusi egin behar no-rekin atera, dena ez bada, gehiengo. Gutxien eskatzen



Jose Alberto Pradera, EAJko Bizkaiko diputatu nagusigai.

J. SIMAL

duena, horrekin joango gara.

EGUNKARIA.— Baina Gasteizen dagoeneko badago Gobernu hirukoi-tza.

PRADERA.— Horrek ez du ezer esan nahi guretzat. Azkenean garrantzi-tsuena bakoitzak duen indarrak neurtzen du guztia. Hori ikusi arte, ez daukagu no-rekin bai edo no-rekin ez. Bakarrik, argi esan dugu HBkoek ez badituzte instituzioak onartzen eta duten bidetik aldaketa handi bat ematen, horiekin ez.

Nik ikusi dut nola hona etortze-koak ziren enpresa handiak joan egin diren, ETArekin kontua dela eta. Euren esango dute ez dela egia, baina nik badakit, eta inork ezin dit burutik kendu.

Orduan, HBrekin koalizioan ba-goaz, hona ez dator inor. Euren asmo asko erakusten dute, baina gauza ho-riek aurrera ateratzeko aurrekontu ona behar da, eta hori nondik dator? Gehiena enpresetatik.

Hau ekonomia erreala da, baina hortik ateratzen da herri erreala. Bu-

rujabetasuna izen bat baino ez da; motor hori martxan ipintzeko dirua behar da. Burujabetasunaren mo-
torra bihotza da, baina gasolina dirua da; bihotzak diru barik ez du eze-
tarako balio.

EGUNKARIA.— Gai honekin sartuta, gaur egun independentziazaletzat jotzen duzu zeure burua? Zer esaten du zeure bihotzak?

PRADERA.— Neure bihotzak dio in-
dependentzia berba bat baino ez dela, eta berba bat diot ze gero ikusi egin behar da hori dioenak zer esan nahi duen.

Burujabetasuna zer da niretzat? Herriak bere erakundeetan edukitzea bere boterea, bide honetatik ala bes-
tetik jo behar dugun erabakitze-
ko, baina aldamenetan zer daukazu-
n jakinda.

Orain Europa mailan gaude, eta badaude hortik, kanpotik datozen aginduak, guk bertan parte hartuta ere.

Niretzat burujabetasuna indepen-
dentzia baino garrantzitsuagoa da,

✓ «Etorkizunean EAJ eta gaurkoetatik ezberdi-
nak diren PSE-PSOE eta HB ikusteko aukera izango dugu; EArena konponduko da, orain ez bada lauzpabost urte barru».

independentziak ez duelako ezer esan nahi. El Congo, Guatemala, ... independentieak dira, baina ez dute burujabetasunik.

EGUNKARIA.— Baina Nafarroa, Eus-
kal Autonomi Elkarte, Iparralde... hiru zati eta bakoitzak bere institu-
zioak ditu.

PRADERA.— Orain ezagutzen ditugun estatuak zaharrak dira eta 93tik aurrera ikusiko dugu nola zaharrak diren eta nola ezin den beste mundu batera joan.

Eta horretan ardatza Euskadi da, ez Hego Euskadi, Euskadi osoa. Ar-
datz atlantiarrean edukiko du aukera on bat kultur arloan, gizarte arloan, herri bat izateko. Gero, ekonomia arloan beste ez dakit zer gertatuko dela? Hor ere batera joango dira gauzak, interesak berdinak direlako.

Nire ustez Mundua Euskadirentzat bide on batetik dator. Guk orain-txe ikusi nahi dugula hori? Benio, as-
mo bat da. Baina pasako dira hamar, hogeitaz urte eta ikusiko dugu. Herri honek ezagutu dituenak ezagututa, hori itxarotzea ez da asko.

EGUNKARIA.— HBk dio bera PSOE eta EAJ direla etorkizuneko alder-
diak. PSE-PSOEn ustez, bera eta EAJ. Zure ustez, zein eredu finka-
tuko da etorkizunean?

PRADERA.— Zorionez edo zoritxa-
rrez, Euskadin aukera asko dago, baina egia da herri honek bakea lor-
tuko balu beste gauza bat izango li-
tzatekeela. Europa munduan ikusten
besteko desberdintasunik, puntu
batzuetan ezberdinak izan arren.

Uste dut herri honetan ikusteko
aukera izango dugula, EAJ alde ba-
tetik, PSOE bestetik, baina ez orain-
goa, eta beste HB bat, oraindik ez-
berdinak; EArena konponduko da,
orain ez bada, lau edo bost urte barru.